Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Kaxilda Zubialde Olaskoaga

Oiartzun, Gipuzkoa
(1911-2012)



Aurkibidea

Biografia



Kaxilda ergoiendarra zen, Txanpañen jaio eta bizitakoa. Gaztetan kaleko Ollarragirrera etorri ziren eta handik ezkondu zen plazara. Ergoiengo Garatekoa zuen senarra, arotza. Txanpañe Aierdiren ondoan dago, eta Aierdi eskola zen. Hori dela eta, auzoko bere adineko haurrekin harreman handia eduki zuen Kaxildak. Plazan bertan biziki, Oiartzungo gertakari nagusien lekuko bikaina zen Kaxilda. Bere garaiko beste askoren modura, gauza onak baino txarrak gehiago pasatakoa zen, baina umore onari eusten zion beti.

Zintak

OIA-012

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Data**: 2007-03-29
- **Iraupena**: 57 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-013

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Data**: 2007-04-02
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-014

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Pikabea Lasa, Joxe Luix
- **Data**: 2007-04-02
- **Iraupena**: 56 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

Pasarteak

1. Izeba lisatzailea

- **Erref**: OIA-012/005
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:18:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Ama Txanpañekoa zen, Ergoiengoa, eta beraiek han jaioak dira. Izeba lisatzailea zuten. Elizako arropa eta Oiartzungo beste etxe batzuetakoak ere plantxatzen zituen izebak, almidoiarekin. Casildak zestoan eramaten zuen arropa, Ergoiendik Oiartzungo kalera. Kaleko etxeak eta pertsonak aipatzen ditu.

2. Txanpañe

- **Erref**: OIA-012/007
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:20:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Ergoiengo Txanpañen jaioa da Casilda. Aurreko zelaia berea zuten eta amak behia gobernatzen zuen bertan, belarra eta 'pagoxa'rekin. Ahizpa zaharrena igitaiarekin ebaki zen.

3. Aierdiko maistra

- **Erref**: OIA-012/014
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:34:12. **Bukatu**: 00:37:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Aierdin eskola: Asko elkartzen ziren bertan. Maistra Gasteizkoa zen, Sor Consuelo. Aierdin bazuen tokia bizitzeko, baina Postan zegoen apopilo, Ergoienen gelditzeko beldurtu egiten omen zen eta.

4. Gerran, irakasle aldaketa

- **Erref**: OIA-012/015
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:37:12. **Bukatu**: 00:39:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Gasteizko maistrak ez zekien euskaraz. Elkar ulertzeko, hiztegia erabiltzen zuen. Gerra garaian, beste irakasle bat hasi zen Aierdin.

5. Gerratik ihesi

- **Erref**: OIA-012/016
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:39:00. **Bukatu**: 00:40:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gerra garaian, senideak Irunera joan ziren, eta Kaxilda Larrezabalera, senarraren familiakoekin. Atxiloketak gertatu ziren.

6. Senarra militarrek eraman zuten

- **Erref**: OIA-012/017
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:40:10. **Bukatu**: 00:44:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:
Militarrek gidak behar zituzten alde batetik bestera mugitzeko; herriko bi hartu zituzten horretarako. Kaxildaren senarra zen horietako bat. Gero ere beraientzat lan egitera behartu zuten; arotza zen eta kutxak egiten jarri zuten.

7. Hiltzeko beldurrez

- **Erref**: OIA-012/018
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:44:00. **Bukatu**: 00:46:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Gerran, senarra Azainera joaten zen ogiak eramatera, eta bitartean, Larrezabalera joaten zen bisitan. Hango batek kalera jaitsi nahi izan zuen, eta hil egin zuten. Senarra hilko zuten beldurrak egoten zen.

8. Militarrei laguntzera behartuta

- **Erref**: OIA-012/020
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:49:20. **Bukatu**: 00:52:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Kaxildaren senarrak militarrentzat lan egiteari utzi nahi zion, baina herriko karlista batek mehatxu egin zion, uzten bazuen akabo zela. Beldur handia pasatu zuten senar-emazteek. Gerrak ez duela ezer onik dio Kaxildak.

9. Oiartzungo kaleetako harria

- **Erref**: OIA-013/001
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Klaketa. Oiartzungo kaleko lurra harriekin egina zegoen. Oso arriskutsua zen; jende asko erortzen zen. Gaur egun Aialde kalea dena zegoen egokiena. Pixa kalea -Mendiburu-, berriz, oso txarra zen. Elizako eskailerak ere orain baino malkartsuagoak ziren.

10. Hilerria

- **Erref**: OIA-013/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:08:20. **Bukatu**: 00:09:40

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Elizaren atzeko hilerria txikiegi gelditu zen, eta, ondorioz, orain ezagutzen dugun Zurko baserriaren ondoko kanposantua egin zuten. Garai hartan tifusarekin asko hiltzen ziren.

11. Tifusa

- **Erref**: OIA-013/005
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:11:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Gerra denboran hil ziren asko tifusarekin. Bere senarra ibiltzen zen gerrako eriak kanposantura eramaten eta tifusarekin hildakoak ere berak eramaten zituen. Lan horretarako lagunak ezin bilaturik ibiltzen zen, kutsatzeko beldurrarengatik.

12. Gaixotasunak

- **Erref**: OIA-013/007
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:13:00. **Bukatu**: 00:14:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Tifusarekin eta gripearekin hiltzen ziren asko. Gripea deitzen zioten, baina oso gogorra zen.

13. Sendagileak

- **Erref**: OIA-013/009
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:14:25. **Bukatu**: 00:15:30

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Bi mediku gogoratzen ditu Kaxildak: Don Bernardo Oñatibia eta Don Regino Galtzarain.

14. Sendagilearen lana

- **Erref**: OIA-013/011
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:16:15. **Bukatu**: 00:18:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Ez zegoen anbulatoriorik. Medikuek beren etxean egiten zuten kontsulta edo gaixoaren etxera joaten ziren. Don Regino zaldiz eta Oñatibia bizikletan.

15. Elizaldeko merkataritza

- **Erref**: OIA-013/012
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:18:10. **Bukatu**: 00:21:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Elizaldeko dendak: Faustinarena, Fermiñene, Xapaterone, Muguruzane... Bere senarrak aroztegia zuen Mendiburu kalean. Sozioarekin nola hasi zen kontatu digu Kaxildak; hitz gutxi nahikoak izan zituzten elkartzeko.

16. Plazako giroa eta feria

- **Erref**: OIA-013/015
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:28:00. **Bukatu**: 00:30:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Plazan lehen baino argitasun gehiago egoten zen; pertsona gehiago ibiltzen ziren. San Juan kalean feria egiten zen. San Anton egunean bertan ematen zieten bedeinkazioa abereei.

17. Aberatsak

- **Erref**: OIA-013/017
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:32:40. **Bukatu**: 00:34:30

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:
Oiartzunera etorri eta bertan bizi ziren kanpotar aberatsek Udalari diru asko ematen omen zioten. Neskameak oiartzuarrak zituzten. Gerra iritsi zenean, Arixmendi eraman zuten, hiltzeko, baina haiek ez zituzten ukitu.

18. Atxilotuak, gerran

- **Erref**: OIA-013/018
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:34:30. **Bukatu**: 00:37:20

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gerra garaian, Feliciano Beldarrain zegoen alkate, eta militarrak Kaxildaren bila joan ziren alkatearen etxera lagun ziezaien. Alkatea eta iturrioztar bat hartu zituzten. Kaxildari etxera itzultzeko esan zioten. Atxilotuei zer gertatuko zitzaien galdetu zuen eta militarrek ez zitzaiela ezer gertatuko esan zioten. Baina atxilotutako guztiak ez ziren itzultzen.

19. Jose Mari Egues, alkate

- **Erref**: OIA-013/020
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:38:45. **Bukatu**: 00:40:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Nafarroatik etorritako Jose Mari Egues alkatea izan zen. Denbora gutxi egin zuen, baina Urkaben landatzeko denbora eman zion.

20. Apaizak

- **Erref**: OIA-013/026
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:47:20. **Bukatu**: 00:49:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Don Idelfonso apaizak baserritar asko bere eskuetan zituen; harekin zuten konfiantza. Askok, hildakoan, beren ondasunak apaizari utzi zizkioten.

21. Xanistebanak

- **Erref**: OIA-013/028
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:49:40. **Bukatu**: 00:52:00

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Xanistebanak: zortzikoa, zahagi-dantza, bizkarrean saltoka ibiltzen zen beste "jostaketa arraro" bat. Bederatzietarako erretira. Hiru egun festetan. Kanpoko jende asko etortzen zen xanistebanetara.

22. Harrikalariak

- **Erref**: OIA-013/029
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:52:00. **Bukatu**: 00:54:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Kanpotik koadrillaka etortzen ziren. Ongi moldatzen ziren bertakoekin, baina arratsean harrikalariak ateratzen ziren bidera. Herriko zaindaria ere, San Esteban, harrika hil zuten.

23. Eliza eta dantza

- **Erref**: OIA-013/030
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:54:00. **Bukatu**: 00:57:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Altzibarko bilera oso polita izaten zen. Jende asko etortzen zen kanpotik; denak oinez. Lehen denean baltsa dantzatzen zen. Gero hasi zen eliza kongregazioetako jendea bidaltzen, baina hala ere, gazteek dantzan segitu zuten.

24. Jostaketak: ttabak eta tortoloxak

- **Erref**: OIA-014/006
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:17:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Jostaketak: ttabak eta tortoloxak. Ardiaren hezurrekin eginak ziren. Sos batzuk izaten zituzten eta haiexek jokatzen zituzten. Beren lagun batek negar egiten zuen beti galdu egiten zuelako.

25. Jostaketak: marru-marruka eta jokoan

- **Erref**: OIA-014/007
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:21:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Jostaketak: Marru-marruka, korrika, lehengusu batek min hartu zuen paretatik salto eginda. Bata bestearen etxera ere joaten ziren, eta han hizketan edo jokoan ibiltzen ziren.

26. Uretan

- **Erref**: OIA-014/008
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:21:00. **Bukatu**: 00:22:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Kaxilda Ergoiengo Txanpañekoa da eta inguruko etxeetako haurrak biltzen ziren jostatzeko. Zulatxipiko askan sartuta ibiltzen ziren, iturriko ura errekakoa baino freskoagoa izaki. Soin zaharrak eta alpargatak jantzi eta errekan ibiltzen ziren.

27. Garbitasuna

- **Erref**: OIA-014/009
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:22:30. **Bukatu**: 00:26:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Garbitu, errekan garbitzen ziren. Neskak, Txanpañe atzeko ibaian, eta, mutilak, Zuloagaerrotako presan. Etxetxo bat ere bazuten arropa aldatzeko. Neguan Aierdin garbitzen ziren; ur beroarentzako tokia egina zuten eta hantxe garbitu eta sukaldeko beheko suaren bazterrera joaten ziren hoztu gabe lehortzeko.

28. Otorduak

- **Erref**: OIA-014/012
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:28:30. **Bukatu**: 00:31:30

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Otorduak: potajea nahi zen guztia izaten zuten; jakia, askotan, zerrikia, eltzean egosita. Arratsean, gehienetan, patata edo bakailao tortilla. Jaietan, normalean, oilaskoa edo oiloa jaten zen. Edateko, pitarra.

29. Jaunartzea ospatzen

- **Erref**: OIA-014/013
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:31:30. **Bukatu**: 00:33:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:
Ospakizunetako otorduak etxean egiten ziren. Bi jaunartze egiten ziren: txikia eta handia. Handia gehiago ospatzen zen.

30. Arropa egin edo konpondu. Erosi batere ez

- **Erref**: OIA-014/015
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:36:15. **Bukatu**: 00:39:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Xanistebanetan arropa berria estreinatzen zen. Berria egiten zen, baina konpondu asko egiten zen. Trajeari buelta eman ere bai askotan. Soinekoak nolakoak ziren. Tablak aurrean bakarrik egiten ziren, buelta guztian egiteko oihal asko behar baitzen.

31. Zinema

- **Erref**: OIA-014/017
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:41:00. **Bukatu**: 00:44:30

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Sara Montiel espainiar aktoreak pelikula bat grabatu zuen Oiartzunen. Jende askok gogoratzen du gertakizun hau. Kaxildak ere oso gogoan du: plazan bizi ziren eta beren etxeko balkoia leporaino bete zen filmaketa ikusteko. Oiartzunen zinema egon zen; Don Jose Bergaretxe apaizak jartzen zituen pelikulak Kontsejun.

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com